


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuela Uriondo Ipiña

*Zeberio
Bizkaia (1922)*

Aurkibidea



Biografia



Ereñotza auzoko Ipiñikoa baserrian jaio zen 1922. urtean. Gurasoak ere Zeberioakoak zituen. Bost neba-arrebatatik zaharrena zenez, txikitatik hasi zen baserriko beharretan eta umezain. Gerra Zibilean, eguna ondoko baso bateko txabolan pasatzen zuten, etxera lotara bakarrik joaten ziren. Baserriko antzinako bizimoduaren ezagutzak erakutsi dizkigu elkarrizketa honetan. Senarra ere Zeberiokoa aurkitu zuen.

Zintak

ZEB-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-01-24
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Etxazarra, Ainhoa

Pasarteak

1. Igitaiaz ira ebakitzen

- **Erref:** ZEB-005/004
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Iratan asko joaten ziren. Igitaiaz ebakitzen zuten. Lan gogorra zen. Kodainaz jarduten zuten gizonak. Eurak igitaiaz multzoa ebaki eta galtzarbera. Gurdian ekartzen zen ira etxera. Gurdia nolakoa zen.</p>

Transkripzioa

-Eta iretan be joango zifien?

-A bai! Ire ebaten bai. Jo! eta gero irak batuten pillora... Karran ekarri! ixin ekarri!Biximodue gogorra e? gogorra euki gindun, gogorra gogorra gogorra.

-Ze erabiltzen zenduen ebateko?

-Igitie. Ama nireak kodaiñea baia guk igitie.
 -A bai?
 -Bai.
 -Eta zuek zegaitik?
 -Zegaitik kodaiñea? ixiten zan handia eta igitie ixin zen txikia eta geu txikiek eta handie ezin gindun ibili. Ta holan koiu ta hor azpire eta gero moltzotxora.
 -Eta hori dana nora, gurdire edo nora?
 -Ez, lehelango sikitu eta gero batu eta gero ein montoia eta gero burdira.
 -Eta gero hori non gordetan zan?
 -Etzean ondoan eiten zan montoia, ganaduakaz ekarrite. Burdien.
 -Zelakoa zan burdie?
 -Burdie ixin zen karro bat [...] erruda bigez eta gero holango kamea luzea eta sartzean zan ganaduek, holan taketagaz eta buzturriegaz. Eta buzturriek eukiten euen ardian kapea busti ez iteko. eta gero aurrera!
 -Eta erroberak eta?
 -Bai, erramalakaz estute. Soka, sokeagaz, sokeagaz. Sokea geituten geuntsen. Estuteko burdiko idea. Eske ekarri behar zan urrinetik, etzera ekarteko, eta burdie estu behar zan ondo.
 -Baia burdiek errobedak?
 -Erruedak erredondoak, baia burdiek eukiten euen holan egur handi bat ezta? eta han egur handien sartzean zian errudak. Errudak ixiten zien oholak eta oholak, untza lodiekaz inde oholak eta gero holan erredondoan eiten zan ojalata bat. Ojalata lodie e? bere ojalata lodie. Eta holan bueltan etorten zan burdia.

2. Bermeotik arrain-saltzaileak Zeberiora

- **Erref:** ZEB-005/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Taloa urdai erreaz eta arto-zopak, hori izaten zen afaria askotan. Arrain apurtxo bat ere bai inoiz, "sardinerak" etortzen ziren-eta. Bermeotik furgoneta batez etorri eta auzoz auzo ibiltzen ziren buruan otzarak hartuta.</p>

Transkripzioa

-Gero ze beste behar eiten zenduen baserrien?
 -Baserrien danerik eiten gindun, soloan, basoan eta gero jateko taloa goxean zopakaz eta gabea apur bet zopa, apur bet zopa, apur bet eiten danean eta gero arto-zopak jan eta ohera.
 -Arto-zopak bakarrik?
 -Bai! arto-zopak eta ezipabere taloa ein, holan einde taloa. Oingo moduen ez! taloa. Eta apurtxu bet urdeia, prijidute barruen eta holan ha bokadilloa.
 -Eta hori egunero?
 -Bueno, bai, batzuten peskau apurtxu bat be bai. Etorten zirean handi sardinerak, Bermeokoak.
 -Bermeotik etorten zian?
 -Bai.
 -Joe. Ta zelan etorten zien Bermeotik?

-Bermeotik hona etorten zian auto, furgoneta zarratu baten eta gero buruen sardinakaz. Barriorik barriora: Ereñotza, Solatxi /Solatxe/, Barbatxano... Horrek ixiten zien barrioak.
-Eta dirua bai ala sardinak pagateko?
-Bai, bai, hori pagetako bai. Debalde ez euen emoten, debalde ez.
-Trukea ez?
-Bueno, frutea egoten zan etzean.
-Trukea, trukea, trukie. Zuek emon berari fruta edo...
-Ez, ez, ez. Ez euren gure holangorik, ez, ez.

3. Lurra lantzeko tresnak

- **Erref:** ZEB-005/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Ganaduekin egiten ziren baserriko beharrak. Orain makinekin. "Area" eta "itillea" zuten izena tresnek; "makinea" lurra iraultzekoak, goldeak.</p>

Transkripzioa

-Eta gero soloko beharrak? labrantza ta?
-Ganaduekaz, buzturriagaz... Osteien egoten zan, ixiten zan bat ganean ibiltzen dana hagin askogaz eta beste bat eskuegaz ibiltzen zana, [...]
Ganaduekaz, baia orain makiñiekaz dau, makiñiekaz, eta ja ez da behar ganadurik soloan, makiñiagaz.
-Ta lehen ganaduekaz ze tresna erabiltzen zan?
-Geituten jakon bateri area eta besteari geituten yakon itillea. Eta besteari geituten yakon makiña, bueltetan dauena lurre.
-Buelta emoten.
-Bai, buelta emoten dauena. Eta besteak eiten euriezan, bat lehelango pasetan zan... area geituten jakona eta gero makinetan zeuena pasetan zan itilleagaz. "Con la itilla".

4. Artoa eta garia ereiten

- **Erref:** ZEB-005/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Lurra landutakoan, garia eta artoa ereiten zen. Artoa eta indaba aitzurraz egindako zulotxoetan botatzen zen. Garia, berriz, erein egiten da, eta area erabiltzen da lurra lantzeko.</p>

Transkripzioa

-Eta hori dana ein da gero, ortuarie...

-Bai, artoa ta garie ta dana ereiten zan e? Eta gero satsak ateraten zien burdien. Eta gero eiten direz, iten zien zuloak eta botaten zan artoa eta indobabea. Eta eukiten zan artoa eta indobabea.

-Eta hori zelan ereiten zan, garie eta artoa eta?

-Artoa eiten zan atxurregaz holan moltzitxu bat, beste bat eta beste bat eta hara botaten zan artoa eta indababea. Eta gero atzera tapau, tapau, tapau. Eta garie eiten zan makiñeagaz pasau, buelta emon eta areagaz pasau eta erein eta atzera areagaz pasau.

5. Artoa eta ogia egiten labean

- **Erref:** ZEB-005/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Errotan irina eginda gero, etxean eralgi egiten zen ogia egin aurretik. Labea kanpoan zuten. Labea nola garbitzen zen. Artoa ere egiten zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta garia jo ta gero ze eitten zan?

-Gero eroaten zan errotara, eiten zan molidu errotan, etzera ekarri, holan galbahian holan paseu eiten zan, eralgi esaten geutsen, eralgi. Eta gero eiten zan ogia. Egoten zan labadurea. Labadureagaz eiten zan moltzotxua, itxiten zan han apur baten eta gero gure dozun piloa, edo hiru ogi edo lau ogi eiteko.

-Zenbatero eiten zan ogie?

-Lau ogi edo bost ogi astean jateko. Artoa be bai e? artoa be holan e? Artoa ixiten zan apurtxu bet laztxuagoa. "La borona era mucho mas ordinaria".

-Eta labea etze barruen euki zenduen?

-Ez, ez, ez kanpoan, kanpoan, kanpoan etzean kanpoan. Egurregaz eiten zan labea e? egurregaz eiten zan. Gero garbitu eiten zan.

-Orduan labea kanpoan?

-Bai. Egurre ekarten zan basoti, egurre basoti ekarten zan eta labea eiten zan sue eta berotu. Eta gero garbitu eiten zan, holan iñarra bategaz edo moltzo bat ipini, trapa, eta ur artean busti eta gero bihurtu eta garbituten zan labea ondo botateko artoa edo... Artoa be eiten zan ta ogia be bai.

6. Zeberrioko errotak

- **Erref:** ZEB-005/011
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Zubibarriko errotara joaten ziren. Baziren lau edo bost errota Zeberion. Gezalan txiki bat. Batzuetan errotan bertan bahetzen zuten. Artoa ehota egoten zen, hartu eta ekarri egiten zen.</p>

Transkripzioa

-Eta nongo errotara joaten ziñen?
-Zubarrira, Zubarriko errotea geituten geutsen. Zubarriko, "Azuberria". Errotea Zubarrira.
-Zuen barrioa?
-Ez, ez, beheragoan. Ez, ez, geurean ez. Beheragoan, plazea baino goratxugoan.
-Eta errota asko egon zien?
-Bueno bai, errotak... nik ezetu neuzenak. Bata Elorribietan, eta beste bat Santa Krutzen, eta beste bat Zubarrin eta gero beste bat Gesalen, baia txikitxu bat. Gesale geituten jakon lekuen txikitxu bat, holan etzekoak eta eiteko modukoa bakarrik, etzekoak eta eiteko. Baia horrik besteok ja Zeberiokoak onak.
-Eta errotara eroaten zenduen...
-Astoa.
-Astoa eta garanduta eta dana bueltan ekarten zan?
-Ez, itxi eiten zan... bai! bai egoten zan bai, ihota egiten zan, ihota. Ja einde egoten zan. Baia batzutan eiten gindun bertan pasau, ze etzekoa esaten geuntsen galbahia, bahia, bahia geituten geutsen. Bahia ixiten zan gurea, azpikoa lastxugoa, eta egoten zan fintxugoa, eta han pasaute ekarten gindun, errotan bertan.
-Eta eroandako dana bueltan?
-Ez hori itxi in behar zan apur bet, egun batzutan. Eta gero in behar zan partikular, bera bakarrik in behar zan. Eiteko hori, zeinbet dan gurea etzera ekarteko.
-Eta artoagaz bardin?
-Ez, artoa egoten zan beti einde. Artoa eroan eta ekarri eiten zan. Ja artoa egoten zan prepareute.

7. Artabizarraren infusioa diuretikoa da

- **Erref:** ZEB-005/013
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:38. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Artaburua estaltzen duenari "kapaxa" esaten zaio; "artopillea" lokotxari. Sua egiteko erabiltzen zen. Kapatxa abereek jaten zuten. Koltxoia egiteko ere erabiltzen zen. Lastamarra harrotu egin behar izaten zen noiz edo noiz, trinkotu egiten zen eta. Arto-bizarra infusioan hartuta ona ei da txiza egiteko.</p>

Transkripzioa

-Eta artoa errotara eroaten zan garanduta. Eta beste dana? arto azalari zelan...
-Horrik etzean eiten zien. Etzera ekarten zan ebagite eperditi lastoa.

Bueno, soloan be bai, zuritu eta gero hori bakarrik etzera, burue, burua, artaburue.

-Artaburue. Gero artaburue...

-Artaburue... in behar dau sikitu eta ein behar zan garandu eta gero errotara garandute.

-Eta artaburuan barrukoari zelan esaten jakon hemen Zeberion?

-Kapaxa. Kapaxa ganeko kapeari.

-A, hori da, azalari?

-Azalari. Eta gero artaburue eta gero artopillea, eukiten deuen han barruko palua, artopillea.

-Eta artopillea zetako ibiltzen zan?

-Artopillean egoten zan pegaute artoa, [...] eta gero hareri paluareri geituten jakon, pegaute egoten danari, artopillea. Eta han egoten zan garaue.

-Eta artopillea garandu ostean zetako erabiltzen zan?

-Gero artopillea su iteko. Egurra moduen ixiten zan, egurtxo modukoa. Baia aurena, aurena, artoburuena.

-Kapaxak?

-Kapaxa ixiten zan azala, kapaxa.

-Ta kapaxa zertako?

-Ganaduek jaten audien.

-Eta etzeko zeozer eiteko? koltxoak edo...

-Bai, lehen holangoak koltxoak be. Oin ja muelleak doaz ezta? baia lehen kapaxazko ba zerak... lastamarragea...Lastamarragea holan zulo bat eukiten auen teleak eta holan sakudituten eskuekaz [...]

-Lastamarra.

-Lastamarragea eskue sartzean zan barrurra apur bet sakudiduteko gora, ze zapal-zapal paretan zan eta. Urru!, urru! ai zelango zaratea sartzean [...] ohian! Eta holan sakuditzen zan. Oin gero ja muelleak dauz ez? eta gero oin ja flexak.

-Eta arto bizarrak?

-Bai. Arto bizarrak esaten auden, eiten zituzten askok egosi, txis eiten ezin / ixin/ deurenak, zaharrak, edateko ura, arto bizerrana dana. Txis in ezin / ixin/ dauenak daukela bejigakoa edo holan, puxigakoa. Eta esaten audien ha, gustue ez auen eukiko ona baia, edaten zan pasaute pasadoreti ura, arto bizerrana. Hori esaten audien, hori esaten audien.

8. Erremedioak

- **Erref:** ZEB-005/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Sabeleko gaitzerako, labatiba hartzen zuten inoiz. Kipula-ura erabiltzen zen katarroarentzat. Esnea txerri koipeaz ere bai. Zaldarrentzat enplastoa. Zamako minarentzat, arto-irina berotuta ipini lepo inguruan, koillarra balitz bezala.</p>

Transkripzioa

-Bueno, labatibea iñoz emon dosku, labatibea, hori gomatxo ez dakizu? Eperdien sartute, zzz, holan pitue eta gero ostaien goma bat ezta? emon

dosku hori iñoz.

-Eta buruko miñantzatzat eta?

-Bueno, buruko miñentzako... ez dakit...

-Edo kalentura.

-Kalentura egoten zanean... bai, pastilla bat hartu gindun, pastilla bat. Ez dakit ze uzen [eukon] pastillak.

-Eztula eta katarroantzatzat?

-Bai, jarabea, bai egoten zan jarabe bat.

-Kipulea ta ez zenduen erabiltzen?

-E?

-Kipulie edo...

-Bueno, kinpulean ure bere egosite edaten... hartzen zan. Kinpulea egosi eta haren ure.

-Zertako?

-Katarroantzako, katarroantzako. Eta beste batzuk esnari botata... txarrie hiltzen zan eta gero koipea eiten zan urtu eta gero gordetan zan kazuelan edo noberak gure dauen lekuen, eta... askok hartzen euen, neuk ez dot hartu e? taza bat esnea bero irikine eta koilara bat koipea hara botata. Neuk ez dot hartu e? baia askok hartzean auen e? neuk ez dot hartu e? baia askok hartuten auen, askok.

-Eta, zaldarrantzatzat edo?

-Bai, zaldarrak. Zaldarrak eta eiten gindun... enplastu bat eiten audien, kinpulla bategaz, holan bedar bat topeute. Eta gero ondo orioagaz in gorritu, ondo gorri-gorri in de gero holan enplastue in eta trapu beten ganean, eta ha gero ifini. Eta gero zamako miñentzatzat artourune erre, sartanean edo, eta holango medi baten sartu eta kollarrera [...]. Kollarra moduen e? artourunegaz.

-Orduen hori erre eta hemen jarri.

-Bai, zamako miñe dekounean. Katarro fuertea daoenean ba... niri ipini doste, niri ez jatan gustetan, baia neuk be eukin dot hori e? Neuk be bai. Baia beste batzuk esnea irikin, koillara bat holango koipea bota eta azukrea, eta hartu. Neuk ez dot hartu, baia nik ikusi dodaz auzokoak hartuten.

9. Umeei jausitako hagina arratoiak eroan

- **Erref:** ZEB-005/017
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:24:38. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Koñaka hagineko minarentzatzat. Umeei hagina ateratzeko fiirutxo (haritxo) batez tira eginda. Gero bazter batean uzten zen arratoitxoak eraman zezan.</p>

Transkripzioa

-Eta hagiñeko miñentzatzat?

-Hagineko miñentzatzat.... egoten zan koña, koña botaten zan. Hori dala fuertea, baia bardin aukiten gindun mine e? Bueno, gauk... gazteak ixiten gintzen eta guk ez, ze txikiten botaten zien haginek ez deure miñik emoten. Txikiten botaten zien... bueno bai, apurtxu bet loka daoenean klak! atera neuk be in dotsedaz nire umeari.

-A bai?

-Bai. Firutxu bet sartu ta tak! atera. Baia esnekoak esaten direzenak. Firutxu bet holan sartu lodia eta ta! Aitu, aitua zer dauen ama! [...] aurek konturetu orduko tak! zelesen. Baia gero emon behar zan apurtxu bet dirue karameloa erosteko.

-A bai?

-Klaro. Ostean agoa ez deu zabalduten.

-Ta zuen sasoian? Zu umea ziñanean, ze itten zenduen jeusiniko hagiñegaz?

-Hagineko minegaz?

-Hagiña jeusi ta gero ze eitten zan hagin horregaz?

-Ba imini eiten zan, ez dakit /eztait/ eskintxu beten, esaten auen, ba eroaten dau arratoiak

-Baia zu umea ziñenean be bai?

-Bai, bai, bai. Nire umeakaz ez, nigaz be bai abuelak! Ni abuelagaz egon nintzen e? Txikitxurik hasite.

10. Atzera-martxa, haurdun ez gelditzeko sistema

- **Erref:** ZEB-005/023
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:28:01. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Orduan ez zen antisorgailurik. Atzera-martxa bakarrik. Abadeari ez zion horrelakorik kontatzen. Ba ei ziren abade "preguntoiak", galdetu behar eztakoak galdetzen zituztenak. Nobioak ez zion sekula musurik eman ahoan ezkondu arte. Baina orduan ere izaten ziren haurdun geratutako neskak.</p>

Transkripzioa

-Sasoi hartan haurdun ez geratuteko zozer itten zenduen? Zozer... pastillaren bat hartu? Edo ez zan egon holakorik?

-Ez egoan holangorik, ez.

-Kontuz ibili ta listo.

-“Marcha pa tras”

-Hori zan.

-Bakarrik. Nik e? Beste batzuna ez dakit e? Baia nik por lo menos... buf! “siempre estaba nerviosa”. Buf!

-Joe, ba zuen sasoian hori... hori pekatu... pekatue zan!

-Abadeari esan ezker bai! Baia nik abadeari ez dotset esan holangorik!

-Ez?

-Ez. Ez dotset esan abadeari. Esan gure dotsenak esan deitsela baia nik ez. Nik euki [...] bi.

-Eta abadeak ez euen preguntaten?

-Bai, preguntetan auen /preguntetauen/ konfesetorduen, eiten deuen ta ez dakit zer /eztaizer/ eta badakit zer.. Batzuk pikanteagoak egoten ziren abadeak, preguntoiak. Zetan pregunteu ez daukela, preguntetan dana. Aukin behar dau ume asko ta ez dakit zer... eta bueno, pekatu handie dala aukin ez itea, eta bueno, kasurik bez. Noberak gure deuen in “y punto”.

-Baia sarriten kontau in behar.

-Bueno, ez. Bueno, aukiten auzen zortzi-bederatzi. Gu be bost izin gintzen, baia nik bakarrik bi aukin [dodaz].

-Zu listea izin ziñen...

-Bueno, batzuk paretan ziren enbarazada e? Baia oin beste ez. Oin beste ez. Oin beste ez. Orduen ez zan mosue... oin ensegida mosue be agoan, ez dakit zer. Eta nik sekule be ez dot mosurik... nire nobioak emon agoan mosurik. Baten bez. Baten bez. Baten bez.

-Ezkondur arte?

-Ez, ezkondur arte. Baten bez. Oin, ni beste batzukaitio ez noa /enoa/ esaten, ze nire lagunek parau ziren enbrazada be eta ni "la mia", ni neurea, baia nik ez dot sekule bez.

-Jo ba enbarazada geratzea, hori bazala larrixe ez?

-Bastante, etzekoantzako geihau barrez. Pekatu handie aitentzat ta amantzat, pekatu handie. Baia ez, nik ez.

11. Aita jeloskor alabaz

- **Erref:** ZEB-005/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Neskame egon zen Bilbon. Kasillara joaten ziren dantzara. Baina ez zuen nobiorik izan etxera itzuli arte. Ama hilda gero topatu zuen senargaia. Aita guztiz jeloskortu zitzaion eta kortan egin behar izan zuen luzaroan lo. Ezer barik ezkondur ziren. Baina finak izanez gero aurrera irteten da. Seme bat 12 urterekin hil zitzaion istripuz.</p>

Transkripzioa

Ademas, ni egon nintzen krieda eta urtetan neindun hamabostean. Eta ni joan eiten nintzen Casillara jantzan, eta aukiten ninduzen mutil-lagunek. Baia nik nobioa ez dot aukin fijoia iñoz bez, etorri arten etxera. Gero ama hil jatan. Eta bakizu zelan? ama ni krida egon nintzen lekuen aitek itxi euen hurrungo egunean eroateko beste mediko betegana. Eta ni krida egon nintzen etzea ixin zen uzabana goraiño eta porterien euki nauen ama. Eta gero ixin gintzezan lau krida eta ni eta niri toketan jatan mahaie serbitea. Eta besteak esan osten neuk turneuko dotsut /turneukotsut/. Ez, ze nik ez dot gure señoareak jakin deien ama dekotela. Eta kafea serbidu orduen joan nintzenean, ama hilik topau. Eta gero derrigor jakin behar etxeko señoareak. Eta ba bueno, orduen, gero aiztea nireak ezkondur in behar dauela, enbrazada dauela ez dauela... Ez zan egon, guzurre izin zen, eta ni etxera. Eta gero han nobioa topeu nenduen. Eta nobioa topeu orduen /topeorduen/, berandu natorrela ta kortan lo iten. Eta egon nintzen [orduxean?], kridetzan, joateko neure señoara printzipalagaz, ezkondur in zen eta beragaz, beste neskato hiru ni baiño... ni mandamasa, eta etxera etorri. Eta gero esaten auzokoak, horrek neskorrek ez dau merezidu kortan lo eiterik, egon egon dan lekuti. Baia badakizu zegeitio ixin zen? "de celos de mi padre"; nire aita egon zan alargun eta bai, ez austen itxiten ezkonduten ez haregaz, ta ez horregaz ta beste bategaz. Ezelan be ez [auen] ezkonduten itxi. Eta gu ba, "a la buena suerte", in gintzezan ezkondur, atzean eskuek, aurrean eskuek. Diru barik. Baia ixin ezkero fiñe, dana eiten da. Mutillari... mutil bat hamabi urtegaz hil eustien Zeanurin, kamioiak... aplastau. Eta gero, bestea da ingenierue eta da direktor oin.

12. Haurdun geratuz gero, neska errudun bakarra

- **Erref:** ZEB-005/026
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:33:56. **Bukatu:** 00:35:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Erromerian ezagutu zuen nobioa. Orduan neska gutxi geratzen zen haurdun. Orain bitarteko gehiago dago arlo horretan. Umea izanez gero, errua beti neskak izaten zuen.</p>

Transkripzioa

-Nobioa hemen ezagutu zendun?

-Bai, bai, Zeberion.

-Jantzan?

-Bai, jantzan.

-Jaietan edo...

-Ez, oin ez da eiten erromerie ezta? Baia plazan erromerie eiten zan. Ze joten zan kordeoia. Kordeonista bi egoten ziren... hiru be bai! Bueno, hirurek batera ez, batzuten batek, besteak beste baten... holan. Eta ba... hor jantzan. Batzutan karran eskapau etxera. Oingo moduen ez e? Oingo moduen ez e? Oingo moduen ez. Oin ba, holan da ta paso, holan da ta paso. Baia gu, gu beste modu beten. Baten bat paretan zan enbrazada, baia gitxi, gitxi. Bueno, ademas oin medio gehiau dau eta ademas medikuek espertoak edo neska espertak. Emoten dituez programak [...] eta danera, gure deuenak ikisteko. Badauz gauzak, gure deuenak aukin edo gure deuenak aukin ez, nik pentsetan dot. Nik daukot seme bat, baia familie ez dauko.

-Eta hori, lehen neskak geratu ezkerro enbarazada pekatua neskantzat. Eta mutillak?

-Ez da pekatuik. Neskak daukie beti errue, "en todas todas", neskak. Neskak bakarrik ez da eiten holan, baia bueno ba neskak... Eta etxeakoak be bai, zeuk daukozu errue ta panaderak emoten otsiezan. Jo, jo! Zauk deuko zu errue. Bueno! [...] "nada más, si uno no quiere..." batek ez badau gure, besteak ez dau eiten. Baia bueno... biek mosuek emon ta mosuek emon, ba biek berotu.

-Baia errua...

-Ba, neskak.

13. Gizonak ez zuen etxeko lanetan laguntzen

- **Erref:** ZEB-005/028
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Oso gogorra zen orduko emakumearen bizimodua. Baserriko lan guztiak

egin behar, eta gainetik etxeakoak. Etxeko lanetan eta hurrekin gizonak ez zuen laguntzen. Gizonak hobeto bizi ziren.</p>

Transkripzioa

-Eta lehen, emakumeen biximodua gixonakaz konparauta zelakoa zan?
-Bardine, bardina. Solora be bardine, eta dana bardine, bardine, bardine. Gixona hobeto. Ze gero henbrak joan behar auen solora beharren ta etxeko beharrak be in behar zian, txarto edo ondo, umea aukin ezkerro. Baia gixonak... ganadueri jaten emoten botsien, jana be imini behar zan. Henbrean biximodue ixin zen oso gogorra, oso gogorra. Oin, ezkonduen dizenean, gixonak laguntan daudie umeak... ba dodotise iminten, ta danak ipinten. Da lehenago guk holan trapuan bat tuten genduzen umeak e? Eta mantarrean e? Eta gero paxia hemetik ipinten geuntsen e? Eta gixonak ezebez ez aurien lagunduten, apurtxu bet aukiten badeu lepoan iteko beharrak apur bet. Ostantzean aurek libre, libre.
-Ze zuek etxe kanpoan eta etxe barruen beharra.
-Bai, klaro. Soloan, artajorra be esaten jakona, eta danera bedarra ebaten eta danera, danera aukiten gendun beharra. Eta behiek batuten kortan eta danera. Aik askoz hobeto biziten zien, gixonak. Bueno, kanpoan eiten audienak, behar kanpoan, fabriketan ta. Bai, andreak gehitxuao in behar auen /behauen/.
-Ze gixona etxera etorri eta janarie prest....
-Bai.
-Etxea prest...
-Bueno, gero iluntzean lagunduten audien beharren soloan ezta? Baia [...] andrak eiten audien behar gehiau baserrien. Baserrien asko gehiau.
-Ba ze...nik askotan entzunde igual, eurek joaten zien siestara ta gu beharrera. Edo eurek joaten ziren etzunduten ta gu beharrera...
-Beharrera edo umea eukiten, ze umea euki ezkerro umeak beti ez deu lo iten. Umeagaz egon beha dozu /behozu/, ikusten dozu /ikusteezu/?
-Baia amak?
-Amak, amak. Ta gabeen negar iten dau... amak. Eske nireak okerrak ixin direz, nire umeak e? Eta nire gizona beste kuartu betera joan zan lo iten ba. Ta nik esaten, ake etorten zanien hurrengo bueltan badakit zer dekozun. Beste leku betera. Berak fabrikara joan behar dauela beharren eta nik ingo dotela /ingotela/ lo. Zelan lo? Esan neutsen, ganaduek deukedaz eta solora joan behar dot /behot/ eta umea. Zelan lo? Biximodue apurtxu bet hobetotxugo aukiten audien gixonak. Henbrak ademas, nik bi euki nindun, baia batzuk lau eta bost eta... zortzi be bai! Hori asko da e? Hori asko da.

14. Mendiko txabola batean gerra denboran

- **Erref:** ZEB-005/029
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:39:00. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra denboran ez zuten kanpora ihes egin. Mendiko txabola baten egon ziren gordeta. Bonbardaketak izan ziren Zeberion eta hainbat zauritu eragin zituzten.</p>

Transkripzioa

-Ta.. zuk gerrako kontuak be jakin behar dozuz ba!

-Zertzuk?

-Gerrakoak eta. Gerra aurrekoak eta.

-Bueno... apurtxu bat bai. Apurtxu bat bai. Baia guk... gure aitek asko gure otsien ganadueri eta basoko txabola batera joan gintzezan egoten, urriñeko basora, urriñera basora, ganaduekaz eta guk ez gendun urten herriti, herrien bertan... Ta gero ni horti... kanpotik eta gu ez gauz ibilite, ze beste batzuk joan ziren "errefujiaus" esaten audiezan lekure edo Bilbora, edo ez dakit nora, edo ba ez dakit nora, holan ganaduekaz buzturtute, erropa batzuk burdieri iminite... baia guk ez du... eske gure aitek txabola handi bet topeu auen /topeuen/ han goien eta hara joan gintzezan. Eta aitek eta esaten dauen lekure joan behar zan /behazan/, gauri be gustetan jakun, txikerrak ixin gintzen ta joatea urrinera. Baia bonbardeoan bai, gu baiño beheratxugoan ein aurien bonbardeo asko eta batzuk... umeak be tuertu pareu zirean, haxeagaz, bonbeagaz... eta beste batzuk besoak be kendute be bai, hanka batzuk be kendu dotsiezan bonbardeoak. Gerran joan arren kuiau in ituezan ta egon zan bastante.

-Ta orduen, hemen be egon zien zerak, bonbardeoak e?

-Bai. Hemen baiño Gerniken ta hor gehiau ixin ziren, baia hemen gure... ixin gintzezan... gure inguruen be bai ixin zien bonbardeoak bastante, bastante. Holan etze asko ez auden apurtu e? Baia bai, aberiek in ituezan.

15. Milizianoek etxeko gauzak harrapatu eta hondatu

- **Erref:** ZEB-005/030
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:40:52. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Milizianoek ganaduak harrapatu izan zituzten gerra denboran. Euren etxean ere egon ziren eta hainbat gauza harrapatu eta hondatu zuten. Eta isilik egon behar...</p>

Transkripzioa

-Etorten zian milizianuek eta ganaduek kuiau onenak kortatik eta hil ta jan eta horrik gauzok bai in ituezan.

-A bai?

-Bai.

-Ba zer, milizianuek kendu ganadua?

-Bai. Kuiau onenak, eta hil ta ez da pagetan ixin e? Jaten audien ta eroaten.... [...] koiu dotsienari, aurek libre aukin audien. Ostentzean, ez, holango... gu basoan egon gintzezan lez, guk baiño gehiau ikusiko audien beste askok, ze faltau zirean umeak be, batzuk burdiegaz joanda be hil zirean, bonbardeoak auingo zituzen... baia guk holangorik ez gendun ein... Oin, Zeberion bestean batzuk joan zirean ta horrik nik baiño hobeto ingo dotsue /ingotsue/ entrebistea, pentsetan dot. Nik baiño hobeto.

-Eta esan dozu hori, milizianoak eta... zuen etzean be biziten egon zien?

-Bai, bai, egon ziran ta gero apurtu eiten ituezan muebleak eta trastornau eiten ituezan. Eta gero manta ona badeko zu paketau eiten audezan aurek basoan lo iteko edo. Horrek gauzok guri be bai ta besto batzuri be bai...

askori in otsien horrik gauzok. Ta txarrikeri asko itxiten audien etzean. Aurek, aurek okeleagaz ta aurek ondo ibiltzen ziren, guri nahi hareri nahi horrerri, guztieri. Aurek eukiten auren karnizerue, aurek mutillek, milizuanuek, ta hil ta zeure kortan ber-bertan ta ixilik egon behar da / behada/, ostantzean tiroa emoten dotsu. Ixilik. Gu txikerrak ixin gintzen, bueno nik hamalau urte euki nauen e? Orduen. Eta bueno ba nik hainbeste ez, baia gure etxeokak, aitek eta amak, eukien horren penea, ganadue euren saltzekoa hil in dauren. Ez dau dirurik. Eta mesedez ta mesedez. Ez, ez, baia ez dotsue kasurik eiten. Ixilik egoten ez bazara, bum! Botaten auren tiroa gorantza, ixilik egoteko. “Y a callar”.

16. Errazionamendua Zeberion

- **Erref:** ZEB-005/031
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Zeberion ez zen egon frontierik. Errazionamenduan lortzen ziren gauzak: azukrea, kafea eta ogi beltza. Herriko plazan banatzen zen. Dendak itxita egon ziren.</p>

Transkripzioa

-Ta hemen, herrien egon zan bestekaldeko jendie? faxistarik edo...

-Bai. Ez, hemen lutzarik ez zan egon. Hemen baiño Ubidean edo hor egon zan lutzera. Batena ta bestena. Ubidea ixin zen, hurrean. Hemen Zeberion ez. Bata eskoiti ta bestea ezkerreti ez. Holan, Ubidean edo hor hainbaten. Bilbora sartukeran be bai. Bilbora sartukeran egon zan lutzera bat. Baina hemen ez, hemetik, hemetik ez.

-Baia diñot... herrien bertan jendie, jendea egotea bat...

-Ez, erraziñotxue emoten oskun. Erraziñoa emoten oskun. Emoten oskun... da ogie baltza. Baia erraziñoan e? Eta gero azukre apurtxu bet eta kafe apurtxu bet eta... erraziñoan emoten oskun. Eta guk etxean eiten gindunez artoa eta ogie... Ostantzean etorten zan ogie baltza. Bueno, integral edo esaten dotsiena oin. Etorten zan.

-Eta hori, erraziñoana zer zan?

-Ixin zen origo apur bet, azukre apur bet eta kafe apur bet.

-Baia non hartzen zenduen edo...

-Plazan, plazan. Emoten auen gixon batek. Hareri ekarten otsen...

“subasto” edo ez dakit zer esaten otsien, aginduten dauenak ekarten otsien honexen beste persona honexen beste gramo. Dendak zarratute egon zirean, dendatan ez egoan. “Subastos” edo esaten otsien, emoten otsien...

-Abastos?

-Abastos! A esan barik guk u! Abastosak.

17. Arboladiko bonbardaketan hainbat hildako

- **Erref:** ZEB-005/033
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Errotak itxita egon ziren. Castillo Elejabeitiara (Artea) ere joaten ziren errotara, gauez astoaz basorik baso. Hildako asko izan ziren Zeberioko arboladian bonben eraginez</p>

Transkripzioa

-Indababea bakarrik. Artoa eta ez, ez.

-Eta errotak? dendak itxita, eta errotak?

-Be bai, be bai. Gaubez, gaubez beranduen joanda, esaten oskun noz joan nori, ez dakizu? Ta bakotxari iminten otsien. Arratire be joaten gintzezan, Arratire, Castillo Elejabeitiara be bai. Han be euki gindun amistadea eta ba bueno, telefonorik ez egoan, baia gero ez dakit zelan arregletan gintzezan. Joan eiten gintzezan [...] eta ja etorri gaueko hamabietan edo holan halan, astoakaz, astoakaz. Basorik baso. Orduen bastante gogortxu egon zan. Ostantzean tiroa dekozu e? Hil ez euren hil. Hil in eituzen, parrokie baiño beheratxugoan egon zan, hementxe ontxe dauz parroke hemen, hortxe dau parrokie, hortxe arboladien hil eituzan bastante jentea, egon zalako bonbardeoa. Hor hil ituzen bastante jentea.

-A bai?

-Bai. Bastante alargunek parau zirean hemen Zeberion, bonbardeau ein aurien da.

-Baia zer, parrokia?

-Ez, parrokie ez. Parrokien egon zan, behe aldean, arboladie. Eta han arboladien ein audien destrozue.

18. Hiru meza Zeberion

- **Erref:** ZEB-005/035
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Hiru abade zeuden lehen Zeberion, orain bakarra. Lehen auzoetan meza egoten zen, orain herrian bakarrik, domeketan. Bi meza egoten ziren parrokian. Urrun bizi ziren orduan. Orain, berriz, ondo-ondoan. Galtzu-sortari sua emanda etortzen ziren mezara ilunetan. Gizonek gutxi komulgatzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta hemen, herriko abadea eta mantendu in zan edo hori kamniau ein zan?

-Lehen hiru abadea hemen egon zirean! Eta oin bat baiño ez dao. Hiru! Eta hiruntzat egon zan jana, hirurek mantenitan zirean. Eta oin bat baiño ez dao. Eta gero, ba bueno, lehen egoten zan ermitatan be mezea, eta oin ez dao plazan mezea, ez dao Santa Krutzen mezea, Uriondon be ez dao mezea. Horretan egoten zan mezea eta oin hementxe baiño ez dao mezea.

-Eta oin astean behin edo...
 -Bai, bai. Lehen egun guztietan egoten zan mezea, ta oin... lehen zapatuetan be bai, baia oin domekan bakarrik.
 -Ta lehengo mezak? Zelakoak izeten zien?
 -Ba mezak mezak dire. Baia goxeko zazpiretan egoten zan lehelangoa eta gero beste bata hamarretan egoten zan, hemen parrokien, bi egoten zirean. Eta gero, Santa Krutze urrintxu dao ta ez dakit, bedratzietan hurrean. Uriondon ez dakit. Baia hirurek zabalduen ziren... abadeak, baia oin bat baiño ez dao.
 -Goixien goixetik e?
 -Bai, zazpiretan bai. [...] Bueno ta gu parrokiti urrintxu bizi gintzezan e? Oin parrokiare etorri... Neuk esan neindun, bautizau hemen, ezkondu hemen, ta hiltzen hemen. Dana hemen.
 -Eta goizeko zazpitan joaten ziñen mezara?
 -Bai. Eta ni Ereñotzakoa naz da urrintxu dao. Bueno, gazteak [...] brinkeu eiten gindun orduen e? Galtzu pillagaz etorten gintzezan. Hori de pajea, galtzue ba zerena gariena, sue emonda goien [...] mezara, zazpietakora. Oin ez dakit zenbet meza dauen e? Ez dakit, bat badao eta bera ordu batetan.
 -Eta ze eitten zenduen meza entzun eta gero armozau?
 -Ez, gero etxera. Bai, armozetan etxera, bai.
 -Baraurik?
 -Bai, komuniñoa hartuteko bai, gure dauenak hartu, baraurik.
 -Baiña gure deuenak hartu? Danok hartuko zenduen?
 -Ez, danak ez ziran kumulgetan orduen be. Ez, danak ez, danak ez ziran kumulgetan.
 -Ez?
 -Ez. Gitxi kumulgetan zan. Gixonezkoak, lotsa edo, ez zan joaten aurrera kumulgetan. Henbrak bakarrik. Gixona ez, gixonak ez. Nik ez nindun ikusten neuk e?

19. "Horrek kontuok kontau in bihuz beorreri?"

- **Erref:** ZEB-005/036
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:51:08. **Bukatu:** 00:52:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Konfesatzera joandakoan lehenengo "zenbat denbora" konfesatu barik galdetzen zuen abadeak, eta gero gerokoak. Galdera intimoak egiten zituzten sarri, batez ere neskei. "Horrek kontuok kontau in biouz behorreri?" esan ei zion lagun batek abadeari. Gerora abade batek adierazi zion maitasunez egindakoa ez dela bekatua.</p>

Transkripzioa

-Ta kumulgetako konfesau ein behar izaten zan?
 -Bai, bai, bai. Ave Maria purisima esan ta... Lehelango preguntau zenbet denpora dan [...] eta gero beste kontuek. Nik esaten nauen, zelango pregunteak direz horrik gauzok! Solteratan barrez! Bueno...
 -Ezkondu ta gero be bai?
 -Ezkondu ta gero be preguntetan, baia solteratan? Baten esan notsen,

abadea, horrik kontuok guk kontau in behar doguz /bihuz/ beorreri? [...]
Horrik kontuek kontau in behar direz? Danak direla pekatuek esan auen.
Eta gero niri etorten jatan lehelango hilleko barikuen, abadea etorten jatan
nauri bixitea eiten eusten eta komuniñoa ekarten osten. Eta neuk esaten
notsen abadeari, ui zelango pekatuek horrik imbarazada ta pareute.... bai
zera! esan osten, “con amor” eiten dana, gustu handiegaz da “con amor
queriendo”, ez dala pekatue. Ez da pekatue hori abadea? “ya estamos
bien” esan nautsen, “ya estamos bien”. Ez dala pekatue esan auen. Bueno,
esateko egon nintzen e? Orduen Ama Birjiñeak be ez auen ein? Esateko
egon nintzen, Ama Birjiñeak be ez auen ein pekatuek?

20. Gorpua ez zen elizan sartzen

- **Erref:** ZEB-005/040
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hil-kanpaia jotzen zen norbait hiltzen zenean. Eurak urrun bizi ziren eta askotan ez zuten entzuten, baina hala ere jakiten zuten berria. Bi kanpaikada andrearenak eta hiru gizonarenak. Lehen hilkutxak ez ziren sartzen elizara, artez eroaten ziren ortu-santura. Gero egiten ziren elizkizunak.</p>

Transkripzioa

-Nonor hiltzen zanean zelan jakiten zenden?

-Zer?

-Nonor hil dala, zelan...

-Kanpoiatati, kanpoiatati. Kanpoiatati enteretan gintzezan, batek edo besteak. Herrien enteretan gintzezan, enteretan gintzezan.

-Zuek handik baseritik entzuten zenden?

-Baseritik guk ez gindun entzuten baia batek edo besteak iten gindun... enteretan gintzezan herrien. Oin, Uriondo esaten jakona ez gindun entenditan, hor Bertzuteneakoak bez, horrek bez. Eske handie da Zeberio, baia gauk ateetan geuntsen mezak... atetan geuntsune enteretan gintzezan. Batak edo besteak, enteretan gintzezan.

-Eta horrek kanpoiek zelangoak izeten zien?

-"Tristes" oingoak be iguak, "parecido" e? ez jataz /etxataz/ gustetan horrik kanpoiak, tristeak diez. Bi diez kanpaia, din-daun, din-daun bi diez andreanak eta hiru gixonanak.

-Eta mutiko edo neskatille txikixena?

-e?

-Ume txikixena?

-Ume txikiena ez zan kanpaia, baie txikiena ixiten zan entierue kantu... ekarten zeuren kantateak eta umeanak, eta oso polite umeana. Ume txikienak... zaharrenak ixiten zien tristeak. Lehelangotan ez zireanez atautagaz sartuten barrure, ez dakizu?

-Ez?

-Ez. Artez, ortusanture. Baia oin sartzean dire barrure. Ez dituzenak erretan. Baia oin partemaiorrak erre eiten dituez.

-Orduan, ortusanture lehenengo eta gero...

-Gero, elixara. Baia kanpoian azpian kanpoan paretan zan eta botaten otsien bedeinkaziño bat, abadeak berba batzukez. Eta zementeriora ezta?

Eta zementerioan han zertuten zan, lurrean enterretan zien e? Lurrean danak. Gero hasi zian nitxoak eiten eta panteoiak iten. Baia gorpue ez zan sartzean elixara. Baia oin ba erretan diezenak ba [...]

21. Gaubela eta hilen aldeko mezak

- **Erref:** ZEB-005/041
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>"Begirea" (gaubela) egiten zen auzoko bat hiltzen zenean. Arrosarioa erreztatzen zen. Hurrengo egunean hiletak. Mezak ateratzen ziren. Auzuneka ateratzen ziren mezak. "Abadeentzako dirua" ei ziren mezak.</p>

Transkripzioa

-Eta auzokoren bat hiltzen zanean, zer eitten zenduen?
-Auzokoa hiltzen zanean begirea gaubean han egoten gintzen, begiran. Begiran egoten gintzen goxera artean. Eta hurrungo egunean egoten zanez entierrezue...
-Ta ze eiten zan hor?
-Errosarioa errezetan zan. Errosarioa errezetan zan. Begirea esaten jakon.
-Begirea?
-Begirea, begirea. Oseake, Begituten. Begirea.
-Bai. Eta lehen esan dozu mezak ataten zenduezela?
-Bai. Oin baiño gehiau!oin ja itxiten doa jentea.
-Eta hori zer da?
-Ba, leku askotan ez dala atetan ta hemen be bakotxak, noberak atera noberak gure deuenan noberenari, ez dozu entenditan? Ze hemen, lehen dana meza... Mezak barriadak-barriadak aukiten ginduzen atetako, barriadak-barriadak. Guk Barbatxao /Barbatxoa/ esaten gindune, Solatxi, Amezola eta Uribarri. Horreri barriadari atetan geuntsen, hiltzen zanari. Eta beste batzuk beste barriadakoari. Baia oin...
-Zer zan hori mezak atatea?
-Ba mezak atatea... ba, gero abadeantzako dirue. Baia oin, meza asko atetan da igual domeketan, hamar edo hamalau edo hamabost... Baia hiltzen dan egunean... meza oin gitxi ateretan da. Gero noberak noberenari.

22. Jantzi beltzez ibiltzeko promesa ama osa zedin

- **Erref:** ZEB-005/043
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:03:02. **Bukatu:** 01:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Orain ez dago lutorik. Lehen urtebetez eramaten zen arropa beltza. Hiru astean ezin zen erromeriara irten. Ama osatu zedin promesa egin zuen: jantzi beltza erabiliko zuela kordioaz; kordioa bai baina jantzi beltzik ez zuen erabili.</p>

Transkripzioa

-Gero lutoa.
-Oin ja ez dau lutorik. Baltza-baltza.
-Denpora askoan?
-Urte betean. Eta hiru astean, gazteak ixiten gintzezenean be, ez gendun urtetan erromerire, hiru astean. Ze hiru domeka ixiten zirean, te hiru astean. "Riguroso". Baia oin... ezebez.
-Ze zuri ama hil jatzun gazterik.
-Bai.
-Ta orduen urte beteko lutoa?
-Bai, ni egon nintzen orduen krida. Eta bai, urte betean bai. Urte betean. Eske nik ein nindun promesa bat eroateko abitue. Eta egon nintzen krida eta domeketan beti, urte beteko in nindun te! ta ixin zen jantzi baltza holako kordioagaz ezta? Eta nik jantzi baltza ez nindun eroaten, kordioa eroaten nindun, barruen, barruen. Abadeak esan auen, non dau ba jantzi baltza? Domeketan eroan barik beti bat, ba bueno, ademas, uniformeagaz exin zendun ibili jantzi baltza. Eta bai, in nindun ama osatutearren ez dakizu? Hori promesori, baia bueno ama joan zan, amak aukin auen buruen kanzerra "y no había que hacer".

23. Hileta-elizkizunak

- **Erref:** ZEB-005/044
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:04:33. **Bukatu:** 01:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Kantuak eta otoitzak berdintsuak izaten ziren hileta-elizkizunetan, baina hilkutxa, koroien eta abadeen kopurua eta abar ezberdinak aberatsa izan ala pobrea izan. Lepoan eramaten zen hilkutxa etxetik ortu-santura.</p>

Transkripzioa

-Eta entierruetan, danontzat zien entierruek bardiñek?
-Ez, bueno kantuek eta bai baie... kajea ba batzuk hobetxugoak beste batzuk txarragoa. Koroia bat edo bi, hori egoten zan bastante.
-Elizkizune danontzat bardin?
-E?
-Elizkizune?
-Bai. Bai, bueno batzuk aukiten auzen familiarra, auren abadeak, eta igual hemen batek... Hiru egoten zan, horrik hirurok. Lau be egoten zien, baten batek aukiten baten auren familiartekoa, lau egoten zan igual abadeak. Ostentzean, normalean nire denporan, hiru, hirurek.
-Eta, etxetik ortusantura zelan eroaten zan?
-Lepoan. Eske ez egoan kamiñorik... osea, sorbaldan. Bi aurreti ta bi atzeti. Baia oin danan kamiñoa daoure ta dana da kamiñoagaz.

-Ta nortzuk eroaten eben?
-Auzokoak, zeuk guruzuzenak.

24. Erditu eta hamabost egunera "elizara sartzea"

- **Erref:** ZEB-005/046
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:06:14. **Bukatu:** 01:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Zortzi egunen barruan bataiatzen ziren umeak. Hamabost egunera egiten zen "elizara sartzea", ama umearekin etortzen zen mezara. Ez zen egoten, jakina, umearen bataioan.</p>

Transkripzioa

-Eta semea esan dozula. Bautizoa zelakoa zan lehen?
-Ba, batizau eiten zan, "lo más" zortzi egun tardetan zan. Zortzi egun barruen bautizetan zan umea. Oin igual urtebetean be bautizau barik egoten dire. Baia gure denporan zortzi egunen barruen bautizetan zan. Eta gero hamargarren egunean etorten zan mezara, ba, elixara sartzean umea. Meza entzuten umeagaz, gure dauena e? Gure dauena. Ni etorri nez biekaz e? Gure dauena hori? Ze esaten auden Ama Birjiña ez dakit zenbatkarren denporan etor zala umea elix-urterea eiten, elix-urterea. Eta artean ez euela urten etxeti. Eta guk be ez dekogule urtetarik, eta ba zortzigarren egunean mezara, elixara sartzean umea. Gure deuena e? Gure deuena.
-Eta zu egon ziñen zure semien bautizoan?
-Ez. Zortzi egun baño ez nendun aukin, ez naz ixin kapaz etorten, ez, ez. Zortzi egunean debiltxu egoten da nobera e? Ez, ademas partoa bastante gogorra. Ze nire umeak aukin audien bost kilo. Bastante fastidiaute egon nintzen, bastante.

25. Ezkondu eta hurrengo egunean basora

- **Erref:** ZEB-005/049
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:10:18. **Bukatu:** 01:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Ezkondu eta hurrengo egunean basora joan zen igitaiaz ira ebakitzera. Gizona lantegira. Ez da kanpora irten zalea izan.</p>

Transkripzioa

-Ezkondukeran?
-Dirurik ez geunken ta! Hurrungo egunean joan nintzen basora. Igitiegaz ide ebaten. Nire gixona fabrikara eta ni suegreagaz basora.
-Biajerik ez?
-Ez dekot penarik be. Ez jat /etxat/ gustetan holan asko ibiltea, ez jata /

etxata/ gustetan asko ibiltea. Eta etxeak ikusten ta bez, holan ez jata / etxata/ gustetan.

26. Erregearen aldeko botoa familiak

- **Erref:** ZEB-005/051
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:11:14. **Bukatu:** 01:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- Politika » Gerra aurea » 1914-1923: Monarkia

Laburpena:

<p>Bere etxeakoak erregearen aldeko botoa ematen zuten, etxejabe gehientsuenak bezala. Gizona "bizkaitarra" hartu zuen, abertzalea. Berak PNVri ematen dio botoa.</p>

Transkripzioa

-Gerrea egon zanean, errepublikanoak eta bizkaitarrak egon zireala bai! Klaro! Lutxetan audiela Erregean kontra ta bestean kontra.
-Francon kontra.
-Ta Francok iribazi auen. Francok iribazi auen. Klaro, nire etxeakoak ixin zien Erregean zerekoak. Honek propietarioak eta horrek zerekoak, botaziñoatan eiten euden Erregea ta beste batzuk bizkaitarretara. Eta gero ni ezkondu nintzenean, nire gixona ixin zen bizkaitarra, eta nik ba beti entzunde ba Erregera. Eta [...] gixonan [...], ezpabere gerrea egon zan ta. Eta oin PNVri botaten ixin dotset, baia gure etxeakoak aite ta ama ta ixin zien Francon partekoak. Osea Erregea, Erregean partekoak, ez Franconak! Erregeanak. Politikea be... joaten zian botetan ta.
-Baia nazionalistak izango zien.

27. "Kanpokoak etxean eta bertakoak urrinago joanda"

- **Erref:** ZEB-005/053
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:13:16. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>lheslariak izan zituzten etxean, Zeberioke beste etxe askotan bezala. "Kanpokoak etxean eta bertakoak urrinago joanda". Ganaduak eraman zituzten txabola batera, baina eurak etxera etortzen ziren lotara.</p>

Transkripzioa

-Eta hemen egon zien asko joan zirenak ta ez zirenak bueltau?
-Ez, gurean be egon zirean errefujiadu betzuk gure etxean, bixiten kanpokoak.
-Bai?
-Bai. Leku askotan egon zien. Emon behar jakien lekue, ze etorri in zirean Ubideatik eta hortik etorri in zirean jentea honaiño. Hemen parau zirean, ez zirean joan beherago e? Baia bertakoak... kanpokoak etxean eta bertakoak

urrinao joan zirean. Baia ez gendun etzeti urten, ganaduek eroan ginduzen urrinera. Baia gau, etzera etorten gintzezan lo iten.

28. Nazionalistak, falangistak eta komunistak Zeberion

- **Erref:** ZEB-005/055
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:14:00. **Bukatu:** 01:15:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

<p>Hiru bandera egoten ziren udaletxean: espainola, falangearena eta beste bat (karlista). Herrian baziren falangistak eta komunistak ere. Komunistek fama txarra ei zuten.</p>

Transkripzioa

-Ta hemen egon zan batzokirik edo falangien zentrorik edo Zeberion?
-Ez, falangean... Baia falangistak bai egon zirean! Bai egon zirean, eske banderak hiru egon zirean aiuntamentuen eskegite.
-Bai?
-Bai. Ze bandera?
-Bandera española eta falangista eta beste bat ez dakit zein ixiten zan. Hiru ixiten zirean egoten zianak.
-Orduan, falangistak egon ziren Zeberion?
-Bai. Eta egon zirean komunistak be, batzuk. Komunistak aukin audien ba fama txarra, ez dakit zelangoak ixingo zirean baie...
-A bai?
-Gure zaharrentzako. Guretzako ez umeak ixin gintzezan eta. Baie gure zaharrentzako bai.
-Eta egon zan hemen zentro... ba falangien kaferik edo?
-Bai, bai.
-Bai?
-Aiuntamentuen egon zan auren zentroa. Bai.
-Eta nazionalistana? Batzokia?
-Bai, batzokie, bai. Oin be badao e?

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com